Errenteriako Udala
Zk./ Nº 2023/7
Data / Fecha 2023/03/21
AKTA / ACTA

**Espediente zk./**Nº Expediente**:** 2023IGOB0007
**Gaia/**Asunto**:** 2023/03/21 Tokiko Gobernu Batzarra/Junta de Gobierno de fecha 21/03/2023

**Tokiko Gobernu Batzarra 2023ko martxoaren 21ean eginiko ohiko bilkurari dagokion akta.**

Errenteriako Udaletxean, 2023ko martxoaren 21ako 09:15ak zirela, lehenengo deialdian eta Aizpea Otaegi Mitxelena Alkatearen esanetara (EH Bildu Orereta/Errenteria), ondoko zinegotziak elkartu dira:

***EH Bildu Orereta/Errenteria***

- Itziar Ostolaza Galdos
- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar LEMOS TABERNA
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

***Elkarrekin Errenteria***

- Maite Gartzia Ontiveros
- José Manuel Ferradás Freijo

Bertan dago, egintza fedatzeko, Nagore Sarasola Otermin Idazkari orokorra.

**1. 2023ko martxoaren 7ko ohiko bilkurari dagokion akta irakurri eta, egoki bada, onartzea. (2023IGOB0006)**

Oharrik gabe onartu da.

**2. Errenteriako Udalaren Fanderiako Errotako (ibaiaren etxea) jatetxearen herri-jabariko**

**Acta de la sesión ordinaria de Junta de Gobierno Local celebrada el día 21 de marzo de 2023.**

En la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Errenteria, siendo las 09:15 horas del día 21 de marzo de 2023, se reúnen en primera convocatoria, bajo la presidencia de la alcaldesa Aizpea Otaegi Mitxelena (EH Bildu Orereta/Errenteria), las siguientes Concejalas y Concejales:

***EH Bildu Orereta/Errenteria***

- Itziar Ostolaza Galdos
- Garazi Lopez de Etxezarreta Auzmendi
- Bernar Lemos Taberna
- José Ramón Gurrutxaga Zubizarreta

***Elkarrekin Errenteria***

- Maite Gartzia Ontiveros
- José Manuel Ferradás Freijo

Asiste y da fe del Acto Secretaria general Nagore Sarasola Otermin.

**1. Lectura y aprobación en su caso del acta correspondiente a la sesión ordinaria del 7 de marzo de 2023. (2023IGOB0006)**

Se aprueba sin observación alguna.

**2. Concesión demanial del Restaurante del Molino de Fandería (Ibaiaren etxea) del**

ESKU90c5d96f-11f8-4171-a2c9-4af43c401712

**emakida.(2022OZER0013)**

**Ayuntamiento de Errenteria.(2022OZER0013)**

2022ko azaroaren 21eko Alkatetzaren Ebazpenaren bidez, espedientea ireki zen "Errenteriako Udalaren Fanderiako Errotako (ibaiaren etxea) jatetxearen herri-jabariko emakida" kontratatzeko, prozedura Irekiaren bidez eta ohiko izapidea.

Visto que por Resolución de Alcaldía de fecha 21 de noviembre de 2022 se incoó expediente para la contratación de la concesión demanial del "Restaurante del Molino de Fandería (Ibaiaren etxea) del Ayuntamiento de Errenteria" mediante procedimiento Abierto y forma de tramitación ordinaria.

Baliozko epean lau (4) proposamen aurkeztu dira, eta hau dira: "UNAI ODRIOZOLA MONREAL", "IÑIGO AGOTE LOS SANTOS", "JOSHUA FERRUS FAYOS" eta "MELCHOR VILA MARTIARENA".

Visto que en plazo hábil se han presentado cuatro (4) proposiciones correspondientes a: "UNAI ODRIOZOLA MONREAL", "IÑIGO AGOTE LOS SANTOS", "JOSHUA FERRUS FAYOS" y "MELCHOR VILA MARTIARENA".

2023ko otsailaren 6an Kontratazio Mahaiak proposatu zuen "IÑIGO AGOTE LOS SANTOS"", kontratuaren adjudikazio-hartzaile izatea, interes publikoetarako onuragarriena izateagatik, sei (6) urteko iraupenarekin, urtero beste hiru (3) urtez luzatzeko aukerarekin eta 8.510 euroko urteko kanonarekin lehenengo urtebeterako.

Visto el acuerdo de la Mesa de Contratación de fecha 6 de febrero de 2023, proponiendo como adjudicataria del contrato a "IÑIGO AGOTE LOS SANTOS", al ser la más ventajosa para los intereses públicos, con una duración de seis (6) años, prorrogable anualmente por otros tres (3) años más, y un canon anual de 8.510 euros para la primera anualidad.

Proposatutako adjudikazio-hartzaileari eskatu zaio, hainbat dokumentazio aurkeztea, baita behin betiko bermea ezartzea ere; hain zuzen ere, 3.000 eurotako bermea.

Visto que se ha requerido al adjudicatario propuesto, para que aportara diversa documentación así como que depositara una garantía definitiva por importe de 3.000 euros.

Interesauak eskaturiko dokumentazioa ekarri du, baita behin betiko bermea ere.

Visto que la interesada ha aportado la documentación requerida y la garantía definitiva.

Udal Kontuhartzaileak fizkalizazio txostena egin du.

Visto el informe de fiscalización de la Interventora Municipal.

**ZUZENBIDE OINARRIAK**

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

- Sektore Publikoko Kontratuen Legea (9/2017 Legea, azaroaren 8koa)

- Ley de Contratos del Sector Público (Ley 9/2017 de 8 de noviembre)

ESKU90c5d96f-11f8-4171-a2c9-4af43c401712

2023ko martxoaren 7an Ondare eta Kontratazioko Delegatuak egindako erabaki-proposamena, eta Ondare eta Kontratazioko Arduradunak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkateak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau,

**ERABAKI DU**

1. ADJUDIKATZEA IÑIGO AGOTE LOS SANTOS (DNI: 44160854-A) jaunari, "Errenteriako Udalaren Fanderiako Errotako (ibaiaren etxea) jatetxearen herri-jabariko emakida" emateko kontratua, sei (6) urteko iraupenarekin, urtero beste hiru (3) urtez luzatzeko aukerarekin eta 8.510 euroko urteko kanonarekin lehenengo urtebeterako. Hori guztia lizitazioa arautu duten Baldintza Administratibo Partikularren eta Baldintza Teknikoen Agirietan jasotakoaren arabera, baita espedientean jasota dagoen adjudikazio-hartzailearen eskaintzaren arabera ere.

Ondorio horietarako, sukaldaritza kolektiboko lan-sektorearen estatuko hitzarmen kolektiboa aplikatuko da.

2.- IZENDATZEA Kontratuaren Arduradun, Iñaki Azkarate, Ingurumeneko Teknikaria.

3.- Era berean, ESKATZEA adjudikazio-hartzaileari 15 laneguneko epean, adjudikazioaren jakinarazpena egin denetik kontatzen hasita, kontratua elektronikoki sinatu dezan administrazio dokumentuan.

4.- ARGITARATZEA kontratuaren adjudikazioa, Errenteriako Udalaren kontratatzailearen profilean, iragarki baten bidez.

Vista la propuesta de acuerdo del Delegado de Contratación y Patrimonio de fecha 7 de marzo de 2023 y la conformidad dada por el Responsable de Contratación y Patrimonio a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldesa de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**ACUERDA**

1º.- ADJUDICAR a D. IÑIGO AGOTE LOS SANTOS (DNI: 44160854-A) el contrato para la contratación de la concesión demanial del "Restaurante del Molino de Fandería (Ibaiaren etxea) del Ayuntamiento de Errenteria", con una duración de seis (6) años, prorrogable anualmente por otros tres (3) años más, y un canon anual de 8.510 euros para la primera anualidad, de conformidad con los Pliegos de Claúsulas Administrativas Particulares y Prescripciones Técnicas que han regido la licitación, así como a la oferta del adjudicatario que consta en el expediente.

A estos efectos, será de aplicación el Convenio colectivo estatal del sector laboral de restauración colectiva.

2º.- DESIGNAR al Técnico de Medio Ambiente, Iñaki Azkarate, Responsable del Contrato.

3º.- REQUERIR asimismo al adjudicatario para que en el plazo de 15 días hábiles a contar desde el siguiente a la notificación de la adjudicación, formalice electrónicamente el contrato en documento administrativo.

4º.- PUBLICAR la adjudicación del contrato mediante anuncio en el perfil del contratante del Ayuntamiento de Errenteria.

ESKU90c5d96f-11f8-4171-a2c9-4af43c401712

**3. Tabu Demon´s Musika Elkartea, Udal elkarte erregistroan inskribatzeko eskaera. (2022IIGE0014)**

Errenteriako Udalak, 2001eko irailaren 28an, Herriaren Onurakoak izan eta dirua irabaztea xede ez duten elkarteen udal erregistroa arautzen duen erregelamendua onartu zuen.

Erregistro honetan inskribatua egoteko baldintzak bete behar dira:

1.- Errenteriako udalerrian lankidetza-lanak egitea.

3.- Eusko Jaurlaritzen Justizia, Ekonomia eta Gizarte Segurantza Saileko Elkarteen Erregistroan behar bezala inskribatua egotea.

3.- Elkartearen zuzeneko edo zeharkako eginkizunek, enpresaritza, lan-profesional edo artistikoekin zerikusirik ez izatea.

2022ko abenduaren 27an Unai Sanchez Gonzalezek, "Tabu Demon´s Musika Elkartea" ordezkatuz, aipatutako erregistroan inskribatzeko eskaera egin zuen.

Eskaerarekin batera, erregelamenduak eskatutako agiriak aurkeztu zituen.

Kultura saileko teknikariaren 2023ko martxoaren 2ko txostena ikusi da. Bertan adierazten denez, eskatzaileak aurkeztutako dokumentazioa bat dator eta elkarte horren inskripzioaren aldeko txostena egiten du.

Kulturako delegatuak egindako erabaki-proposamena eta Kulturako teknikariak

**3. Solicitud de inscripción de la asociación Tabu Demon´s en el registro municipal de asociaciones. (2022IIGE0014)**

Con fecha 28 de septiembre del 2001 el Ayuntamiento de Errenteria aprobó el Reglamento Regulador del Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin ánimo de lucro.

Las condiciones para estar inscrito en este registro son las siguientes:

1.- Realizar actividades de colaboración en el municipio de Errenteria

2.- Estar debidamente inscritos en el registro de Asociaciones del Departamento de Justicia, Economía y Seguridad Social del Gobierno Vasco.

3.- No estar vinculado directa o indirectamente con el ejercicio de actividades empresariales, profesionales o artísticas.

Con fecha 27 de diciembre de 2022, Unai Sanchez Gonzalez en representación de "Tabu Demon´s Musika Elkartea", solicita ser inscrita en dicho registro.

Junto con la solicitud presentan la documentación requerida en el reglamento.

Visto el informe de la técnico del Departamento de Cultura, de fecha 2 de marzo de 2023, en el que se indica que la documentación presentada por el solicitante es conforme e informa favorablemente la inscripción de la citada asociación.

Vista la propuesta de acuerdo de la delegada de Cultura y la conformidad dada por la técnico de

ESKU90c5d96f-11f8-4171-a2c9-4af43c401712

espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau,

**ERABAKI DU**

1.- “Tabu Demon´s Musika Elkartea” Herriaren onurakoak izan eta dirua irabaztea xede ez duten Elkarteen Udal Erregistroan inskribatzea.

2.-Honen berri interesatuari eta kontuhartzailetzari ematea Udal Araudiko 9. artikuluko ondorioak izan ditzan.

**4. Errenteriako Berdintasunerako III. Plana 2023-2031 onartzea. (2023ZBAR0001)**

Lege agindu horri erantzunez, Errenteriako Udalak 2007an egin zuen berdintasunaren eremuko lehenengo diagnosia. Diagnosi horretan jasotako emaitzak Emakume eta Gizonen arteko I. Berdintasunerako Plana egiteko balio izan zuten.

2008ko abenduaren 19an, Osoko bilkuran onartu zen Errenteriako emakume eta gizonen arteko Berdintasunerako Plana 2008-2012. Plan honen bitartez ezarri ziren egun berdintasunerako politikak osatzen dituzten oinarriak.

2013ko maiatzaren 23an, Alkatearen dekretu bitartez, Errenteriako Emakume eta Gizonen arteko II. Berdintasunerako Plana 2013-2016 onartu zen. Ondoren, Osoko Bilkurak 2013ko maiatzaren 28an berretsi zuen, eta 2017an,

Cultura a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello en el ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**ACUERDA**

1.- Proceder a la inscripción de la asociación “Tabu Demon´s Musika Elkartea” en el Registro Municipal de Asociaciones de Interés Municipal sin ánimo de lucro.

2.- Dar cuenta al interesado así como a Intervención de Fondos Municipales a efectos del artículo 9 del reglamento Municipal.

**4. Aprobar el III Plan para la Igualdad 2023-2031 de Errenteria. (2023ZBAR0001)**

En respuesta a este mandato legal, el Ayuntamiento de Errenteria realizó en 2007 el primer diagnóstico en materia de igualdad. Los resultados obtenidos en este diagnóstico sirvieron para elaborar el I Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres.

El 19 de diciembre de 2008 se aprobó en Pleno el Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Errenteria 2008-2012. A través de este Plan se establecen las bases que actualmente conforman las políticas de igualdad.

El 23 de mayo de 2013, mediante decreto de Alcaldía, se aprobó el II Plan para la Igualdad entre Mujeres y Hombres en Errenteria 2013-2016. Posteriormente, el Pleno lo ratificó el 28 de mayo de 2013 y en 2017 se propuso la vigencia hasta el 2018.

ESKU90c5d96f-11f8-4171-a2c9-4af43c401712

indarraldia 2018ra arte luzatu zen.

**ZEHAZTAPENAK**

2021ko maiatzaren 4an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean Errenteriako emakume eta gizonen arteko III. Berdintasunerako Planaren *indarkeria matxistarik gabeko bizitzak* ardatza onartzeko eta II. Berdintasunerako Planaren beste hiru ardatzak luzatzeko proposamena onartu zen.

2022ko azaroaren 29an egindako Tokiko Gobernu Batzarrean Errenteriako emakume eta gizonen arteko III. Berdintasunerako Planaren *gobernu ona* ardatza onartu zen.

Era berean, 2021. eta 2022. urteetan zehar II. Berdintasun Planaren *Bizimodu eramangarria erdigunean jartzea* eta *emakumeen ahalduntzea* ardatzen ebaluaziorako lanak, egoeraren diagnostikoaren eguneraketa eta III. Berdintasun Planaren *zaintza-lanen ekonomia feminista, ekonomia feminista eta emakumeen ahalduntzea* ardatzen lanketak burutu dira.

Ondoren, ardatz guztian lanketetan oinarrituta Errenteriako Emakume eta Gizonen arteko III. Berdintasunerako Plana 2023-2031 osatu da.

2023ko otsailaren 2an Errenteriako Udalak Errenteriako Emakume eta Gizonen arteko III. Berdintasunerako Plana 2023-2031 Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundera bidali zuen txostena egin zezan.

2023ko otsailaren 24an Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena jaso eta bertan egindako gomendioak jaso dira.

Berdintasunerako Teknikariak, 2023ko martxoaren 14an, Errenteriako Berdintasunerako III. Plana 2023-2031 onartzearen aldeko txotena egin du.

**ESPECIFICACIONES**

En la Junta de Gobierno Local celebrada el 4 de mayo de 2021 se aprobó la propuesta de aprobación del eje *vidas libres de violencia machista* del III Plan para la Igualdad entre Mujeres y Hombres en Errenteria y la propuesta de prórroga de los otros tres ejes del II Plan para la igualdad.

En la Junta de Gobierno Local celebrada el 29 de noviembre de 2022 se aprobó el eje *buen gobierno* del III Plan para la Igualdad entre Mujeres y Hombres en Errenteria.

Asimismo, durante los años 2021 y 2022 se han realizado los trabajos de evaluación de los ejes *poner en el centro el estilo de vida sostenible* y *empoderamiento de las mujeres* del II Plan para la igualdad, la actualización del diagnóstico de situación y la elaboración de los ejes *economía feminista de los cuidados, economía feminista y empoderamiento de las mujeres del* III. Plan para la igualdad.

A continuación, en base a los trabajos de todos los ejes, se ha elaborado el III Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Errenteria 2023-2031.

El 2 de febrero de 2023 el Ayuntamiento de Errenteria envió el III Plan para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Errenteria 2023-2031 a Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer para que emitiera su informe.

Con fecha 24 de febrero de 2023 se ha recibido el informe de Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer y las recomendaciones realizadas en el mismo.

La Técnica para la Igualdad, con fecha 14 de marzo de 2023 ha emitido informe favorable a la aprobación del III Plan para la Igualdad 2023-2031 de Errenteria.

ESKU90c5d96f-11f8-4171-a2c9-4af43c401712

## ARAUDIA

Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko eta emakumeen kontrako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko otsailaren 18ko 4/2005 Legeak hau dio 15.3 artikuluan:

"*Foru-aldundiek eta udalek berdintasun-planak onartuko dituzte, Eusko Jaurlaritzaren plangintza orokorrean ezartzen diren esku-hartze ildo eta gidalerroei jarraikiz, eta, beharrezkoak diren baliabide material, ekonomiko eta pertsonalen bitartez, bermatu egin behar dute aipatu planetan eta lege honetan jasotzen diren neurriak benetan eta koordinatuta exekutatzen direla beren sail, organismo autonomo eta mendeko edo lotutako bestelako erakunde publiko guztietan. Udalek banaka edo kide diren edo ondorio horietarako osa ditzaketen mankomunitate, kuadrilla, edo elkartzeen bidez egin ditzakete jarduketa horiek. Horretarako, Eusko Jaurlaritzak eta kasuan kasuko foru-aldundiek laguntza emango diete; bereziki, gaitasun ekonomiko eta kudeaketa-gaitasun txikiagoa dutenei".*

Legearen 15.4 artikuluari erreparatuz, udalen eta foru aldundien berdintasun-planetan gutxienez kontuan hartu beharreko alderdiak honakoak dira:

*"4.– Bigarren eta hirugarren paragrafoetan aipaturiko planek honako hauek izan behar dituzte, gutxienez:*

*a) Egoeraren diagnostikoa.*

*b) Planak egiten feminismoaren eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko adituek, kolektiboek, elkarteek eta gizarte-eragileek parte hartzeko bideak, batez ere herritarrei zuzendutako planetan.*

## NORMATIVA

El artículo 15.3 de la Ley 4/2005, de 18 de febrero, para la Igualdad de Mujeres y Hombres y vidas libres de violencia machista contra las mujeres, establece lo siguiente:

*"Las diputaciones forales y los ayuntamientos aprobarán planes para la igualdad, de acuerdo con las líneas de intervención y directrices establecidas en la planificación general del Gobierno Vasco, y garantizarán, mediante los recursos materiales, económicos y humanos necesarios, que en cada uno de sus departamentos, organismos autónomos y otros entes públicos dependientes o vinculados se ejecuten de forma efectiva y coordinada las medidas previstas en los mencionados planes y en esta ley. Los ayuntamientos podrán realizar dichas actuaciones de manera individual o a través de las mancomunidades, cuadrillas o agrupaciones de las que formen parte o constituyan a estos efectos, y contarán para ello con asistencia del Gobierno Vasco y de las correspondientes diputaciones forales, especialmente los de menor capacidad económica y de gestión".*

En relación con el artículo 15.4 de la Ley, los aspectos a considerar como mínimo en los planes de igualdad de ayuntamientos y diputaciones forales son los siguientes:

*"4. - Los planes referidos en los párrafos 2 y 3 han de disponer, al menos, de:*

*a) Diagnóstico de situación.*

*b) Cauces para la participación en su elaboración de los agentes sociales, las asociaciones, colectivos y personas expertas del ámbito del feminismo y de la igualdad de mujeres y hombres, en el caso de planes dirigidos fundamentalmente a la ciudadanía.*

ESKU90c5d96f-11f8-4171-a2c9-4af43c401712

*c) Inplikatutako sailek edo arloek maila teknikoan nahiz maila politikoan, parte hartzeko bideak.*

*d) Aurrekontua.*

*e) Egutegia.*

*f) Helburuak, ekintzak eta ezartzeko-, jarraitzeko-, ebaluatzeko- eta kontu emateko sistemak, dagozkien adierazleekin".*

Legearen 15.6 artikuluak hau esaten du:

"*Bigarren eta hirugarren paragrafoetan aipatutako planak eta programak onartu baino lehen, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak horiei buruzko txostena egin behar du, zehazteko ea plan eta programa horien edukiak egokitzen diren lege honetan aurreikusitakora eta Eusko Jaurlaritzak onartu behar duen plan orokorreko esku-hartze ildo eta gidalerroetara, 1. paragrafoan xedatutakoaren arabera*".

Berdintasun saileko zinegotzi delegatuak egindako erabaki-proposamena eta Aholkulari juridikoak espedientean jasotako akordio-proposamenari emandako adostasuna ikusita.

Horregatik guztiagatik, Udal honetako Alkatetzak eskuordetutako eskumenak baliatuz, Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, honako hau,

**ERABAKI DU**

1.- ERRENTERIAKO BERDINTASUNERAKO III. PLANA 2023-2031 onartzea. (espedientean jasota dagoen dokumentazioa).

Eta aztertu beharreko gai gehiagorik ez zegoenez,

*c) Cauces para la participación de los departamentos o áreas implicadas, tanto a nivel técnico como político.*

*d) Presupuesto.*

*e) Calendario.*

*f) Objetivos, acciones y sistemas de implantación, seguimiento, evaluación y rendición de cuentas con sus correspondientes indicadores".*

El artículo 15.6 de la Ley dice:

***"****Antes de su aprobación, los planes referidos en los párrafos 2 y 3 han de ser informados por Emakunde-Instituto Vasco de la Mujer en lo relativo a la adecuación de sus contendidos a lo previsto en esta ley y a las líneas de intervención y directrices previstas en el plan general que el Gobierno Vasco ha de aprobar, según lo dispuesto en el párrafo 1".*

Vista la propuesta de acuerdo de la delegada del área de Igualdad y la conformidad dada por la asesora jurídica a la propuesta de acuerdo que consta en el expediente.

Por todo ello, en ejercicio de las competencias conferidas en virtud de delegación efectuada por la Alcaldía de este Ayuntamiento, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad,

**ACUERDA**

1.- Aprobar el III PLAN PARA LA IGUALDAD 2023-2031 DE ERRENTERIA (documentación que consta en el expediente).

Y sin más asuntos de los que tratar, la Presidenta

ESKU90c5d96f-11f8-4171-a2c9-4af43c401712

presidenteak bilkura amaitutzat eman du egun bereko 09:25 zirela. Eta aztertutakoa eta erabakitakoa jasota gera dadin Akta hau egin dut. Idazkari orokorrak.

levanta la Sesión, siendo las 09:25 horas del día de la fecha. Y para constancia de lo tratado y de los acuerdos adoptados, extiendo la presente acta. La Secretaria General.

Errenteria, 2023ko martxoaren 21a

Errenteria, 21 de marzo de 2023

Idazkari orokorra / Secretaria general

Nagore Sarasola Otermin

Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **ESKU90c5d96f-11f8-4171-a2c9-4af43c401712**
*Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronokoan:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***
*Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica:* ***https://uzt.gipuzkoa.eus?De=06710***

## Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| | |
|---|---|
| **Titulua / Título:** | 2023IGOB0007-AKTA/ACTA (ERRENTERIAKO UDALA) |

Sinatzailea 1 / Firmante 1: NAGORE SARASOLA OTERMIN - 44164957N
Idazkari Orokorra
Data / Fecha: 2023/03/21 11:59:20